



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO OGASUN  
ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA  
GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGO  
PRESTUAREN ARTEKO GIZARTE  
LANKIDETZA HITZARMENA, ZERGA-  
AITORPEN PUNTUALAK AURKEZTEKO ETA  
ORDAINTZEKO.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN SOCIAL  
PARA LA PRESENTACIÓN Y PAGO DE  
DECLARACIONES TRIBUTARIAS  
PUNTUALES ENTRE EL DEPARTAMENTO  
DE HACIENDA Y FINANZAS DE LA  
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y EL  
ILUSTRE COLEGIO DE LA ABOGACÍA DE  
GIPUZKOA.**

#### **IV. ERANSKINA**

**ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA  
JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO  
ZERGAREN KUDEAKETA (60T, 60A eta 60S  
EREDUAK)**

#### **ANEXO IV**

**GESTIÓN DEL IMPUESTO SOBRE  
TRANSMISIONES PATRIMONIALES, ACTOS  
JURÍDICOS DOCUMENTADOS Y  
OPERACIONES SOCIETARIAS (MODELOS  
60T, 60A y 60S)**

##### **LEHENA.- Eranskinaren edukia.**

Eranskin honen xedea da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagozkion autolikidazioak aurkezteko oinarriak eta prozedura ezartzea (60T, 60A eta 60S ereduak), IV. eranskin hau sinatzen duten pertsona atxikien bitartez.

##### **PRIMERA.- Contenido del anexo.**

Es objeto del presente anexo establecer las bases y el procedimiento para la presentación de las autoliquidaciones correspondientes al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Operaciones Societarias (modelos 60T – TP, 60A – AJD, y 60S – OS) a través de aquellas personas adheridas que suscriban el presente anexo IV.

##### **BIGARRENA.- Eremu objektiboa.**

4. eranskin honen eremu objektiboak 60T, 60A eta 60S ereduen bitartez aitortzen diren zerga-gaiak hartzen ditu, salbuespenik gabe.

##### **SEGUNDA.- Ámbito objetivo.**

El ámbito objetivo del presente anexo IV alcanza a los hechos imponibles que se declaran a través de los modelos 60T, 60A y 60S, sin excepciones.

##### **HIRUGARRENA.- Eranskin hau sinatzen duten pertsona atxikiak egin beharreko jarduerak.**

Atxikitako pertsonak egin beharreko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako jarduera zehatzek berekin dakarte autolikidazioa egitea eta aurkeztea (670, 671 eta 672 ereduak), dagokion dokumentazioarekin batera, eta dokumentu eta eredu bakoitzari dagokionez, honako egiaztapen hauek egin beharko ditu:

##### **TECERA.- Actividades a realizar por las personas adheridas que suscriben el presente anexo.**

Las actividades concretas relacionadas con la gestión del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Operaciones Societarias a realizar por las personas adheridas suponen elaborar y presentar las correspondiente autoliquidaciones de dichos impuestos (modelos 60T, 60A y 60S) junto con la documentación correspondiente, así como realizar respecto de cada uno de los documentos y modelos las comprobaciones siguientes:



- Oro har, egiaztatu behar dute aurkeztu den dokumentazioa baliozkoa dela ondorio juridikoetarako, eta autoliquidazioan adierazitako datuak bat datozela eskrituran, agiri pribatuan edo agiri judizialean ageri direnekin, betiere Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren araudian eta eredu bakoitzari dagozkion jarraibideetan ezarritakoa kontuan hartuta.
- Begiratu behar dute badagoela korrespondentziarik zerga-egitatearen eta aurkeztutako autoliquidazio ereduaren artean.
- Ereduaren jarraibideak kontuan hartu, hura erabat bete arte.
- En general, comprobar que la documentación aportada sea válida a efectos jurídicos y que los datos consignados en la autoliquidación se correspondan con los señalados en la escritura, documento privado o documento judicial, aplicando estrictamente lo estipulado en la normativa relativa al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Operaciones Societarias así como las instrucciones relativas a cada modelo.
- Verificar la correspondencia entre el hecho imponible y el modelo de autoliquidación presentado.
- Seguir estrictamente las instrucciones del modelo hasta su completa cumplimentación.

#### **LAUGARRENA.- Araubide juridiko aplikagarria.**

- Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko araudia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta \_\_\_\_\_ arteko gizarte lankidetzaz hitzarmena, zerga-aitorpen puntualak aurkezteko eta ordaintzeko.

#### **CUARTA.- Régimen jurídico aplicable.**

- Normativa tributaria de aplicación al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Operaciones Societarias.
- Convenio de colaboración social para la presentación y pago de declaraciones tributarias puntuales entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y \_\_\_\_\_.